

ZIENTZIARI ETA POLITIKA ZIENTIFIKOARI BURUZKO POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA

*Unibertsitate Ikerketa, garapenaren eta ongizate
sozialaren akuilu*



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas



Eginbidea, Idazkaritza Exekutiboarena, zeinaren bidez jasotzen baita posizionamendu hau 2019ko apirilaren 25ean egindako 65. Batzar Nagusi Arruntean onetsi zela, lehendakariaren oniritziarekin.

José María Rosell Bueno

*Unibertsitate Publikoetako
Ikasleen Ordezkarien
Koordinakundearen idazkari
exekutiboa*

Pablo Alcaraz Martínez

*Unibertsitate Publikoetako
Ikasleen Ordezkarien
Koordinakundearen
lehendakaria*

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Testuinguru legala	4
2.1. Egungo esparru legala eta bere ondorioak	4
2.2. Espainiako Politika Zientifikoaren etorkizuneko aukerak	6
3. Kalitateko Politika Zientifiko bat gizarte gisa aurrera egiteko	7
3.1. Finantzaketa egoki bat kalitateko Politika Zientifiko baterako	7
3.2. Ikasleak ikerketan sartzea	8
3.3. Ezagutzaren transferentzia, Unibertsitatearen giltzarri soziala	9
3.4. Mugikortasuna	10
3.5. Ikerketaren alderdi soziala	11
3.6. Zientziaren aldeko ituna, kohesionatua eta alde guztiek adostua	12
4. Ondorioak	14



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas

ZIENTZIARI ETA POLITIKA ZIENTIFIKOARI
BURUZKO POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA



1. Sarrera

“Zientzia” ezagutzaren hurbilketa sistematikoa, ordenatua, objektiboa eta egiaztagarria da; eta ezagutza, berriz, hezkuntzaren edo esperientziaren bidez eta errealitateari buruzko gai baten alderdi teoriko eta/edo praktikokoak ulertuz pertsona batek lortutako informazioaren edo gertaeren multzoa. Hala ere, komeni da kontuan hartzea ezen, definizio hori aplikatzen zaion jakintza-arloaren arabera, konnotazioak desberdinak izanen direla.

Politika publikoaren arloan barruan, politika zientifikoak zeregin garrantzitsua du: zientzia ondasun publikotzat hartuzen du, , eta finantzabideak, ikerketa-estrategiak edo ibilbide profesionalaren garapena arautzen ditu, lurraldeari garatzeko eta aurrera egiteko aukera emanez.

Gaur egun, ikerketa garapenerako eta aurrerapen sozialerako tresna garrantzitsuenetako bat da. Nahikoa froga badago esateko zientziaren eta ikerketaren garapenak korrelazio handia duela aberastasun ekonomikoaren areagotzearekin, eta, garrantzitsuagoa dena, jarduera horiek egiten dituzten lurraldeen ongizate sozialarekin. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da ziurtatzea ikerketak Unibertsitatearen helburuak betetzen dituela, eta, beraz, gaur egungo gizartearen garapenean duen garrantzia indartzea, ezagutzak herritarrei transferituz.

Ikasleok, unibertsitateko komunitateko kide gisa, modu aktiboan esku hartu nahi dugu ikerketaren defentsan eta sustapenean, adieraziz Zientziak lehentasuna izan behar duela gizartearentzat, bai eta unibertsitate eta ikasle bizitzaren parte esanguratsua ere.

Hori dela-eta, CREUPen uste dugu beharrezkoa dela posizionamendu bat, Espainiako Unibertsitate Sisteman Politika Zientifikoak izan beharko lukeenari buruz dugun ikuspegia zehaztuko duena.



2. Testuinguru legala

2.1. Egungo esparru legala eta bere ondorioak

Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen zioen azalpenean, “Zientziaren Legea” izenarekin ezagutzen den horretan, zientziarekin zerikusia duten politiketan aldaketa bat egitea proposatzen zen, dinamikoagoak eta dimentsio anitzekoak izan zitezten, ezagutza-politiken eredu berri bat eraikitzeko, eta finantzaketa publiko handiagoaren beharra bere gain hartzeko, ikerketaren eskura jarriz bere lana garatu ahal izateko behar ziren finantzaketa-tresnak.

Hiru urtetik behin, Estatuko Administrazio Orokorrak estatu-plan bat egiten du, gure estatuen ikerketa zientifikoa eredu sozial eta ekonomiko gisa finkatzeko estrategiak garatu eta betetzeko. Plan hori da zientziari buruzko politiken tresna nagusia, eta, beraz, estatuko mapa zientifikoaren espektro zabal batekin lankidetzan egina dago. Horien artean, ikerketa-zentroak, unibertsitateak edo jakintza-arloetako profesionalak nabarmentzen dira, eta, horrez gain, kontuan hartzen dira zenbait kontsulta publikotan jasotako iritziak.

Egungo Estatuko Plana (2017-2020), Zientziako eta Teknologiako eta Berrikuntzako Espainiako 2013-2020ko Estrategiaren eta Europako Batzordearen Europa 2020 Estrategiaren helburuak bete behar dituen, lau adar nagusitan banatuta dago; horien artean daude sistema zientifikoa indartzea, finantzaketaren, enplegarritasunaren, ezagutzaren eta gizarteari begira jartzearen bidez.

Hala ere, Espainian, I+G+Bko inbertsio publikoa Europar Batasuneko gainerako estatuen eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeko kide diren estatuen (ELGA) atzetik dago nabarmen. 2016. urtean, I+G+Bko inbertsioa BPGaren % 1,19 zen; Europako batezbestekoa, berriz, % 1,94, eta ELGAkoa, % 2,34. Gainera, I+G+Bko inbertsio publikorako baliabideen zenbatekoa nabarmen jaitsi da Espainian.



Horrekin batera, alde handia dago estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioek Zientziarako dituzten aurrekontu-partiden eta azkenean gauzatzen den inbertsioaren artean (% 29,7 2017an). Horrek ikerketaren egoera larriagotzen du, eta, ondorioz, arlo horretako profesionalak gure estatuko ikerketa uztera behartzen ditu, dela beste estatu batzuetara emigratuz, dela lanbide-kalifikazio txikiagoko lanak eginez.

Premisa horiekin guztiekin, unibertsitateak babesik gabe geratzen dira ikerketa-arloko politiken aurrean, eta horri buruzko eskumenak dituzten administrazioak dira unibertsitateko ikerketa-lanaren aurrerapenaren edo atzerapenaren erantzuleak. Horren adibide bat Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea izan da. Lege horrek Espainiako unibertsitateen ikerketa-jarduera blokeatu du urtebetez baino gehiagoz, eta erosketa-aukerak mugatu ditu.

Ikerketaren beste kontu garrantzitsu bat da nola eragiten dion I+G+Bri defizitaren arloan autonomia-erkidegoek duten mugapenak. Unibertsitateekin zerikusirik ez duela dirudien arren, unibertsitateek ez dute beren aurrekontuetan defizitik izan behar, aurrekontu autonomikoari kalterik ez egiteko. Hori dela eta, proiektu asko ez dira gauzatzen defizita ez sortzeko, baldin eta unibertsitateetako diru-sarrerak hurrengo urteetan jasoko badira; izan ere, urte horretan defizit gisa kontatzen dira aurrekontuan, eta ez da onartzen.

Muga horiek administrazio publikoen ustezko praxi txarrei aurre egiteko ezarri ziren, eta, egiaz, ikerketa publikoaren aurkako arma gisa erabiltzen dira, haien funtzionamenduari eta kudeaketari eraso egiteko. Hala, sektore pribatuari mesede egiten zaio, zeinak, besteak beste, ez baititu hainbeste oztopo burokratiko. Horren ondorioz, unibertsitateek era guztietako fundazioen eta kanpoko erakundeen mende egon behar dute, arinago jarduteko.

Gure estatuko bikaintasun zientifikoaren mailak bere horretan dirau, nahiz eta inbertsio publikorik ez izan, gure profesionalen lan eskerhari esker.



2.2. Espainiako Politika Zientifikoaren etorkizuneko aukerak

Azken urtean, Estatuko Administrazio Orokorak Zientziaren Legea aldatu du. Lege horretan, hamar neurri aplikatu dira, besteak beste, kontratazioa bizkortzeko, materialak erosteko edo ikertzaileen egonkortasuna errazteko.

Hobekuntza guztiak, bistan denez, laguntza dira, ikertzaileen eta ikerketarako baliabide publikoen egoera oso kaskarra kontuan hartuta. Hala ere, aipatu behar da erreforma hori adabaki txiki bat dela, urte hauetan zehar sektorean izan diren arazo handi batzuk arintzeko.

Arlo zientifikoari dagokionez, esparru guztien ikerketa eta gaitasun teknologikoa areagotu beharra nabarmentzen du erreformak, arlo horretan lan egiten duten pertsonen kopurua eta finantzaketa nabarmen handituz, bai publikoa bai pribatua; gainera, ikerketaren mundua gizarte-erreferente gisa sartzea aipatzen du, bai eta azpiegitura iraunkor eta garbien beharra ere.



3. Kalitateko Politika Zientifiko bat gizarte gisa aurrera egiteko

3.1. Finantzaketa egoki bat kalitateko Politika Zientifiko baterako

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ezarritako traba burokratikoek proiektu askoren aurrerapena eragotzi dute. Beharrezkotzat jotzen dugu I+G+Bren kudeaketaren berezitasuna legez aintzat hartzea, prozesuak sinplifikatzeko eta unibertsitateen lana errazteko, Politika Zientifikoaren arloko hainbat unibertsitate-elkartek Administrazioari eskatzen dioten bezala.

Beharrezkoa da, halaber, ikerketa, zientzia eta/edo ezagutza gizartera transferitzeko eskumenak dituzten lurraldeetako eta tokiko gobernuek ikerketa-planak ezartzea, unibertsitateek eta ikerkuntzan diharduten erakundeek egiten duten ikerketa-lana laguntzeko baliabideak eman eta deialdiak sortzearen. Horrez gain, beren erkidegoko unibertsitate bakoitzari zuzendutako aurrekontuaren barruan, I+G+Bko plan propioak garatzeko aurrekontu-partida bat sartu behar dute.

Plan horiekin batera, ikerketa zibileko baliabide publikoak ugaritu behar dira, eta kapital pribatuko inbertsioa bilatu behar da, inbertsio-aukerak handituz eta, hartara, gure inguruko gainerako estatuetakoa I+G+Bko inbertsio-maila lortzen saiatu. Hala ere, ez dute aukerarik izan behar aurkikuntza pribatuen gaineko betoa jartzeko eta finantzaketa publikoa ordezkatzeko; aitzitik, osagarriak izan behar dute.

Ikertzaileen egonkortasun-arazoei dagokienez, bigarren mailako kontratuen bidez prekaritatea sorrarazten duen lan-legediak, langileak kontratatuzeko funts publikorik ezak eta unibertsitatean eta sektore publiko osoan kalte handiak eragiten ari den birjartze-tasak eragiten dituzte ikertzaileen kontratu moten prekaritatea eta ikerketa-karreraren “botila-lepo” ezaguna.

Ikerketa-arloan eskumena duten errektoreordetzek funtsezko zeregina dute lan horretan, beren deialdietan finantzaketa eta proiektuak lortzen laguntzeko,



unibertsitateko ikerketa-politikak eta ikerketa-ildo estrategikoak proposatuz, bultzatuz, gauzatuz, lagunduz eta zabalduz.

Era berean, beharrezkotzat jotzen dugu unibertsitateko ikerketen emaitzen jabetza- eskubidea babestea, zati batean kapital pribatuarekin finantzatuta egon ala ez. Funtsezkoa da ekoizpen zientifikoa ikertzaileen eta haiek hartzen dituen erakundearen eskubidea izatea eta interes orokorraren mende egotea.

Beharrezkoa da Zientziaren aldeko ituna lortzea, finantzaketa publikoa handitzeko eta egoera aldatzeko.

3.2. Ikasleak ikerketan sartzea

Ikasleek ikerketa-karrera hasteko interesa agertu dute, baina egungo baldintzek ez dute uzten horietako asko gauzatzen.

Irakasle eta ikertzaileen batez besteko adina oso altua da; zehazki, 54 urtekoa izan zen 2018. urtean. Ikertzaile berrien eta erretiroa hartzen dutenen arteko kopuru desoreka hori —batez besteko adinean adierazten dena— arazo handia da, eta arriskuan jartzen du gure unibertsitateetan epe ertainean egiten den ikerketa-lanaren jarraipena.

CREUPen iritzian, ikasleari integratzen eta inplikatzeko lagundu behar zaio, bai prestakuntzaldian, bai ikerkuntzan, eta ikasleen kolektiboa esplotatzea eragotzi.

Ikasleak ikerketa-karreran sartzeari dagokionez, ikasleak ikerketa-proiektuetan parte hartzea eta integratzea sustatuko duen eredu bat aldeztu dugu, beka pribatuak zein publikoak emanez. Azken horiek lehentasuna izanen dute.

Funtsezkoa da doktoretza-programa batean matrikulatuta dagoen ikasleak garatzen duen ikerkuntzan erabateko arduraldia izateko adinako babes ekonomikoa izatea. Horrela, ikasleak ikerketa-munduan sartzea errazten da, eta ikastegietako ikerketa-produkzioa, I+G+B proiektuen kalitatea eta doktoregaien prestakuntza areagotzen dira. Hori dela eta,



unibertsitateen gaietan eskumena duen Ministerioak laguntza gehiago edo doktoretza aurreko beste kontratu eta beka batzuk ematea defendatzen dugu.

Gainera, administrazio eta erakundeek ikerketa-lana egiteko prestatutako giza kapitala ez galtzeko ahalegina egin behar dute.

Eskubide horiek defendatzeko, hirugarren zikloko ikasleak elkartetan antolatu dira, bai Estatuan, bai autonomia-erkidegoetan, bai maila lokalean. Elkarrekin ez dute loturarik ikasleen ordezkartzeekin eta/edo kontseiluekin; izan ere, hirugarren zikloko ikasleen egoera nahasgarria da, irakasle eta ikertzaileen kolektiboko kide izaten dira unibertsitate batzuetan, ikasleen kolektibokoak beste batzuetan, eta bi kolektibo horien arteko linboan egoten dira beste batzuetan. Horregatik, CREUPek sinergiak bilatu eta unibertsitate-gobernantzan kolektibo horrek duen egoerari buruz hausnartu nahi du, eta unibertsitatean aurrera egingen duela ziurtatu.

3.3. Ezagutzaren transferentzia, Unibertsitatearen giltzarri soziala

Unibertsitatearen azken helburuen artean, garrantzitsuenetariko bat da bertan sortzen eta eztabaidatzen den ezagutza guztiaren transferentzia soziala. Ikerketak informazio ugari sortzen du, herritarren aurrerapenerako eta garapenerako balio behar duena.

Unibertsitatea, Estatuarekin batera, lan horren arduraduna da, eta aukera du herritarrei ezagutza transferitzeko eta prestakuntza emateko eremu irekiak sortzeko eta kontzientziazio-kanpainak egiteko, azken batean, hainbat metodologiaren bidez zientziaren dibulgazioa egiteko.

Metodologia nagusietako bat irakaskuntza da, hots, unibertsitateak bere jardueraren guztia garatzeko zeregin nagusia, ikerketarekin batera. Hori dela eta, batzuetan gatazkak eta desberdintasunak sortzen dira bi lanen artean, eta hori konpontzea garrantzitsua da bi diziplinen garapen maximoa ahalbidetuko duen antolaketa-eredua aurkitzeko.

Alde horretatik, bi eginkizunen arteko malgutasunaren alde egiten dugu. Uste dugu ikerketarekin erosen sentitzen diren profesionalak aukera izan behar dutela



irakastorduak gutxiagotzeko. Kontrara, irakaslanean sakondu nahi duten profesionalak hori egiteko aukera izan dezatela haien ibilbide akademikoari kalte egin gabe.

Aurrekoa lortzeko, nahitaezkoa da balio gehiago ematea irakasle eta ikertzaileen kidegoetako irakaskuntza lanei, eta irizpideak aztertzea kontratazioan, irakasleen egiaztatze prozesuetan eta abarretan, zeinetan garrantzia handiagoa baitute ikerketa ekoizpenarekin lotutakoek, eta ez baitira kontuan hartzen irakaskuntza kalitatea eta prestakuntza.

Era berean, beharrezkotzat jotzen dugu unibertsitateko ikerketen emaitzen jabetza- eskubidea babestea, zati batean kapital pribatuarekin finantzatuta egon ala ez. Funtsezkoa da ekoizpen zientifikoa ikertzaileen eta haiek hartzen dituen erakundearen eskubidea izatea eta interes orokorraren mende egotea.

Horri finantzaketa eskuratzeko beharra gehitu behar zaio, eta horren ondorioz produkzio zientifikoa nahi baino denbora laburragoan egin beharra eta irakaslanari baino lehentasun handiagoa eman beharra. Horrek sistema bat sortzen du, non ekoizpen zientifikoa eta argitalpena ezinbesteko bihurtzen baitira karrera akademikoan jarraitu ahal izateko. Premia horren ondorioz, argitaletxeek gehiegikeriak egin dituzte argitaratzeko baldintzetan, eta ikerketaren emaitzak “bahitu” egiten dituzte aldi jakin baterako, eta, hala, ezagutzaren transferentzia atzeratu.

3.4. Mugikortasuna

Mugikortasunak garrantzi handia izan behar du politika zientifikoaren barruan. Mugikortasunak ikerketan duen xedeetako bat da ekintzailtza, lidergoa eta edozein profesionalak bere erakundearen izan behar duen garapena sustatzea.

Oso garrantzitsua denez, Gobernuak irakasle eta ikertzaileak unibertsitatean sartzeko, lan egoera egonkortzeko eta mailaz igotzeko egitura berri bat prestatu du azken hilabeteetan. Irakasle eta ikertzaileen mugikortasunak estatus berri bat izanen du egitura horretan, eta unibertsitatean irakasle lanetan hasteko merezimendutzat



hartuko da 4 hilabete egon izana gutxienez doktoretza-tesia irakurri den unibertsitatea eta lanpostua lortzeko aurkeztu den unibertsitatea ez diren ikastegi edo ikerketa institutuetan. Egonkortzearen kasuan, 9 hilabeteraino luzatzen da baldintza, postulatu berari eutsiz, baina unibertsitateak ez du zertan izan irakaslea kontratatua dagoen unibertsitatea edo ikerketa-institutua ez den beste bat.

Beraz, mugikortasunaren alde egiten dugu guk politika zientifikoaren zutabe gisa. Hala ere, mugikortasunak ez du ondorio ekonomikorik izan behar ikertzaileengan. Hala, bada, finantzaketa handiagoaren alde egiten dugu, bai irakasle eta ikertzaileentzako doktoretza ondoko programetan, bai doktoretza aurreko programetan, bai eta gradu-eta master-ikasketetako praktiketako mugikortasun-programetan ere.

Gainera, uste dugu sistemak mugikortasunaren alde egin behar duela, eta garrantzitsua dela kolektiboari sistemara itzultzeko modua ematea. Sistema zientifiko sendo eta eraginkor baten aldeko apustua egiten dugu, egungo gizartearen arazoei aurre egingen dien sistema baten aldekoa.

3.5. Ikerketaren alderdi soziala

Zientzia, ezagutzarako hurbilketa metodologiko gisa, errealitatearen azterketa aurreiritziz betean oinarritua egon daiteke, eta kolektibo jakin batzuk arrazoirik gabe diskriminatzen dituen ikuspegia izan dezake.

Ikerketak arrisku handia du, ikuspegi eta planteamendu lerratu batetik abiatuta, zenbait estigma zabaltzeko, eta horrek bereizkeria-egoerak sor ditzake. CREUPek defendatzen du ikerketak eraldaketa eta aurrerapen sozialaren motorra izan behar duela, kolektibo diskriminatuen egoera hobetzen laguntzeko.



3.6. Zientziaren aldeko ituna, kohesionatua eta alde guztiek adostua

Funtsezkoa da ikerketa zientifikoarekin zerikusia duten neurri guztiak, arestian aipatutakoak, ez egotea unean uneko Gobernuak duen borondate politikoaren mende eta politika zientifikoak egonkorak izatea. Egonkortze hori Gobernuak, Gorteetan ordezkariak duten alderdi politikoek eta, ezinbestez gure estatuko unibertsitate- eta zientzia-komunitateak bermatu behar dute.

Zientziaren aldeko itunean, kontuak emaitza zientifikoetan —eta ez emaitza ekonomikoetan— ematearen aldeko apustua jaso beharko litzateke, nahiz eta alderdi ekonomikoak gizartearen garapenean eta aurrerapenean garrantzia duen. Beraz, Zientziaren aldeko itunaren beharrezko neurrietako bat gizarte-aurrerabidearen aldeko finantzaketa publikoa areagotzea izanen litzateke. Oso garrantzitsua da ekoizpen zientifikoak onura ekonomikoak sortzearen mende ez egotea, horrek garapen handiagoa ekar lezakeen ikerketa-ildo asko geldiaraztea ekarriko bailuke. Alde horretatik, zientzian eta ikerketan egindako inbertsioa Europar Batasunaren aurreko zor gisa ez zenbatzearen alde egin beharko litzateke.

Beste alderdi garrantzitsu bat da ikerketaren garapena ekitatiboa izatea jakintza-arlo guztietan. Zientzien arloan, azpieroak erabat garatuta daude; Gizarte Zientzietan eta Humanitateetan, berriz, 4 gai daude aukeratzeko. CREUPekoek uste dugu ezagutza-arlo guztiak garrantzitsuak direla gizarte-garapenerako. Beraz, eskatzen dugu gobernuaren eta elkarrizketaren esparruetatik azter dadila ezagutza-arlo bakoitzaren egoera, hirugarren zikloan eremu horiek hartzen duten lekua birmoldatzeko. Horrek, gainera, ikerketarako beken eskaintza eta eskariari eragiten dio, eta ikasleen arteko lehiakortasuna handitzen du.

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu doktoretza-ikasketak malguagoak eta aldakorragoak izatea. Zenbait jakintza-arlotan, hala nola Osasun Zientzietan, jarduera profesionala behar da titulua lortzeko. Jarraitu beharreko eredu bat Norvegiak 2005ean aplikatu zuena da, zeinean ibilbide profesional ezaguneko profesionalak doktoretza titulua



emateko jarraibideak ezarri nahi baitziren. Horrek irakasle eta ikertzaile doktoreen proportzio txikia saihestuko luke zenbait adarretan, hala nola Osasun Zientzien arloan edo ingeniartzaren arloan. Horrez gainera, doktoretza programa malgutuz gero, ikasleek ikerketan jarduten ahalko dute epe baten mende egon gabe. Horrekin guztiarekin batera, ikerketa-beka publikoei dagokienez (LH,LH1), ekarpen ekonomiko handiagoa egin behar da; izan ere, beka horien egungo eskaintza hutsala da, hirugarren zikloko ikasketak egin nahi dituen ikasle kopuruaren aldean.

Beharrezkoa da, halaber, ikerketari buruzko etorkizuneko edozein itunetan birjartze-tasa ezabatzea, belaunaldi-erreleboa eta gure unibertsitateetako giza kapitalaren jasangarritasuna nabarmen zailtzen ari baita, krisi-urte hauetan galdutako irakasleak eta ikertzaileak berreskuratzeko. Ikerketa-karrera egonkorra eta jarraitua garatzea, ikasleentzat erakargarria izan dena eta ikerketa-lanerako bide argia erakutsiko duena, ezinbesteko beste urrats bat da gure estatuetan lan zientifikoaren jarraitutasunari eusteko eta etorkizunean ikerketa gaur egungoa baino hobea izan dadin sustatzeko.

Itun horretan epe luzeko plangintza egin behar da ikertzaileen eta ikerketa-lanen behar globalei buruz, eta hori finkatu eta egonkortu egin behar da, gure estatuak etorkizunean nazioarteko homologoekin parekatzea nahi badugu.

Garrantzitsua da, halaber, talde berriei laguntzea, bereziki gazteek kudeatzen dituztenei. Horri esker, ikertzaileen belaunaldi-erreleboa ziurtatuko da, eta talentuak ihes egitea saihestu.

Azkenik, lehen eta bigarren hezkuntzan zientzian eta ikerketan prestakuntza handiagoa izatea beharrezkoa dela ikusten dugu. Funtsezkoa da hori ikasleek eta gizarteak ikerketa baloratu eta horren alde egin dezaten, ikerketa zer den eta zer onura dituen jakiteko; izan ere, gure prestakuntza-etapa hasten denetik jakin beharko genuke ikerketak nolako balioa duen, hezkuntza-berrikuntzako teknika berrien bidez ikerketa zientifikoa ikasleen bitzita errealera hurbildu, eta hala jarraitu hurrengo prestakuntza-etapa guztietan.



4. Ondorioak

Ikerketa da, eta izan behar du, gaur egungo eta etorkizuneko unibertsitatearen zutabeetako bat. Aurrerapen eta garapen soziala sortzeko dugun tresna ahalmentsuenetako bat da.

Hori dela eta, Estatuaren aurrean lehentasun gisa defendatzen dugu ikerketaren finantzaketa publikoa gutxienez gure inguruko gainerako estatuen (EB eta ELGA) mailetara igotzea gobernu zentralaren eta gobernu autonomikoen bidez.

Kolektibo guztiek ikerketari laguntza ematen ez badiote eta ikerketaren emaitzak gizartera behar bezala transferitzen ez badira, zaila izanen da ikerketaren balioa erakustea eta ikertzaileek gizartean duten eragin positiboa baloratzea.

Hala, ikertzaile gazteak eta ikasle motibatuak ikerketa-karreran integratzeko lan egin behar dugu. Balio onak dituen eta aurreiritzirik ez duen politika zientifikoa funtsezkoa izanen da, hein handi batean, ikerketa ongizate-estatuaren ezinbesteko zutabeetako bat izateko.

CREUPen iritzian, unibertsitateak eta Estatua izan behar dira ikerketaren erreferente nagusiak. Ikerketaren ekoizpenak interes orokorrari egin behar dio mesede, eta ez da egon behar etekin ekonomikoak sortzera bideratua; bestela, izugarri zailtzen dira aurrerapen zientifikoak, eta desberdintasuna sortuko litzateke etekinen hartzaileen artean.

Guk defendatzen dugun produkzio zientifikoaren ereduak arretaz azertu behar du zer den onuragarriena populazioarentzat, horrek interes ekonomikoak sortzen dituen ala ez alde batera utzita.